BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3818

168/2011 DEKRETUA, uztailaren 19koa, zeinen bidez baimena ematen baitzaio Energiaren Euskal Erakundeari partaidetza izan dezan sare elektriko adimendunak ezartzea helburu duen Interes Ekonomikoko Elkarte berri batean.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak honako hau ezartzen du 110.1 artikuluan: enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta ematen den egunetik aurrera izango du indarra.

2010eko abenduaren 27an, Energiaren Euskal Erakundearen Zuzendaritza Batzordeak zera erabaki zuen: sare elektriko adimendunak ezartzeko, -Iberdrola Distribución-ekin batera- Interes Ekonomikoko Elkarte baten partaidetza izateko baimena eskatzea Eusko Jaurlaritzari. Betiere, partaidetza hori lortzeko, kapital sozialari 24 milioi euroko ekarpena egingo zaio, hain zuzen ere, hasierako kapital sozialaren (54 milioi euro) % 46, 52. Nolanahi ere, aurreko paragrafoan adierazi bezala, eragiketa hori egiteko, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena behar da.

Interes Ekonomikoko Elkartearen helburua izango da, Bilbao eta Portugaleten, banaketa elektrikoko sare adimendunak ezartzea.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Berrikuntzako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011eko uztailaren 19an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.- Energiaren Euskal Erakundeari baimena ematen zaio Interes Ekonomikoko Elkarte berriaren kapital sozialean parte hartzeko (helburua: sare elektriko adimendunak ezartzea), hogeita hiru milioi bederatziehun eta lau mila zortziehun eta hogei (23.904.820) eurorekin; zenbateko hori da, hain zuzen ere, berrogeita hamaika milioi bederatziehun eta hirurogeita zazpi mila (52.967.000) euroko guztizko kapital sozialaren % 46.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau onartzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 19an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.